

Bateren batek pentsatu dezake Ermuko parro-
kian egiten diren gauzak bertan asmatuta daudela,
herriko abadeak asmatuta gehienak eta laikoak bes-
te gutxi batzu.

Ermuko parrokia ez dabil bakar jokatzeko ez dugu nahi

bakar jokatzeko

Askorentzat, dudarik gabe, umeen katekesia egitekoan edo Karitasen lanean gabiltzanean egiten direnak edo egiteko moduak parrokia barruan hartutako erabakiak direla, Pastoral Kontseiluan edo. Berdin antzera gertatzen zaie Eleizatik eskontzea gura duten batzuri sakristiatik pasatzen direnean. Eta alde batetik arrazoia daukate ze Eibarren esate baterako beste modu batez egiten dira.

Jokaerak bateratzeko egin zen asanblada

Ermuko parrokia, dena den, oso estu lotuta dago, gauzak berdin egiteko, beste herri batzuetako kristau komunitateekin. Elkar jokatzeko eta bateratze hau argiago ikusten da urte batzuetatik hona.

Orain dela urte batzu, azkenengo hamarkadaren hasieran, kristauen jokaerak bateratzeko gogo bizia sortu zen: Eleiza berria eraikitzeko ados jarri behar ginela; gaurko gizarteak daukan preminei eta beharrei erantzuteko formak elkar pentsatu behar genituela; denon artean hausnartu nolakoak izan behar ziren gure jokabideak, argi erakusteko Jesusen jarraitzaile ginela.

Bateratzeko gogo hauek Ermuan eta Mallabian, Zaldibarren, Berrizen,..., eta Bizkaiko herri gehienetan (Eibarren ez) Asanblada baten bitartez, gorputza hartzen joan ziren. Batzar Nagusi honetan jende asko mugitu zen Ermuan eta ordu pila sartu ziren 1.984-1.990 bitartean, talde txikietan asteroko batzarrak egiten. Erabaki garrantzitsuak atera ziren. Gauza asko izan ziren onartuak. Alde guztietatik egin zen baturaketa hori. Erabakiak pluralak izan ziren. Adibidez: Erabaki zen gaixorik daudenekin lana bultzatzea eta politika arloan arduratsua jokatzea.

Orain dela urte batzu, azkenengo hamarkadaren hasieran, kristauen jokaerak bateratzeko gogo bizia sortu zen: eleiza berria eraikitzeko ados jarri behar ginela.

Orain elkar dihardugun bost urtetarako eginbidea

Hainbeste gauza esan ziren denak bategi ezin direla egin. Hiru urte pasatu dira eta joan gara han esan zena pixkanaka martxan jartzen.

Martxa hori biziagotzeko bost urtetarako plan zehatz bat prestatu da. Izen dotore bat ere asmatu diogu plan horri: Barri onaren eleizbarrutiko eginbidea (1.990 tik 1.995 era burutzeko).

Eginbide honek helburu nagusi bat dauka: «Zuzenagoa eta anaikorra den gizarte bat lortzeko eginbehar aldatzailean ahalegindu».



Eleizaren helburua ez da eleiza bera, gizartea baino.

Eleiza ez da bere buruaren zerbitzari, Jaungoikoaren eta munduaren zerbitzari baino.

Eleizearen eginbeharra Jaungoikoaren Barri Ona iragartea da. Horixe bera zen Jesukristoren zeregina. Barri On horrek ediarazten digu Jaungoikoa gizaki guztien Aita dela eta gizon-emakume denak

maite gaituela; ondorioz gu anai-arrebak garelara eta anaitasunean eta zuzentasunean bizi behar dugula. Honengatik gure ahaleginak zuzenagoa eta anaikorra den gizartea lortzeko. Eleizaren helburua ez da Eleiza bera, gizartea baino. Eleiza ez da bere buruaren zerbitzari, Jaungoikoaren eta munduaren zerbitzari baino. Jesusek Eleizea mundura bialdu zuen, bertan Berri Onak daukan indar askatzaile eta gizabiderakoa isuri dezan.

Aspaldi honetan, gure Ermuko kristau elkarteek, eta bere barruan dauden talde

guztia, eginbide hau hausnartzen eta norberenganatzen diardute gero gabon ostean, parrokiako talde bakoitzak eginbide hau bistan eukirik, urterako bere egitaraua eratu beharko du.

Hala bada

Mendebaldean jo ba dugu ere nahiz eta ekialderantz giza harreman gehiago euki, oso gustora sentitzen gara Bizkaiko beste herrietako kristau komunitateekin gauzak elkar egiten. Gure gogoia hortik jarraitzea da.

TXALAPARTA TABERNA

Ezagutzen gaituzu
badakizu non gaituzun.

